

HIZKUNTZA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURTUA IDAZTEKO IRADOKIZUNAK

**HIZKUNTZA ARLOKO AHOLKULARITZA
Berritzegune Nagusia**

ATALAK:

- PROGRAMAZIO LABURTUA, ZERTARAKO?

- PROGRAMAZIO LABURTUAREN EREDUA
 - 1. Helburuak
 - Helburuen idazkera
 - Mailaz mailako progresioaren adibidea.
 - 2. Edukiak
 - 3. Metodologia
 - 4. Baliabideak
 - 5. Ebaluazioa
 - 5.1. Ebaluazio teknikak eta tresnak
 - 5.2. Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak
 - 6. Berreskurapen eta indartze sistema

- ERANSKINAK
- HELBIDE ERABILGARRIAK

o **PROGRAMAZIO LABURTUA, ZERTARAKO?**

Azken ikasturteotan, curriculum berria indarrean jarri denetik eta horrek ekarri dituen aldaketek eraginda, Programazio Laburtua idaztea zalantza iturri handia bihurtu da irakasleentzat. Zalantza horietako askok lotura estua dute Oinarrizko Gaitasunek curriculumean duten presentziarekin eta Gaitasun horiek eta curriculumeko ohiko elementuek duten erlazioarekin.

Programazio laburtua didaktika-jardueraren leerro nagusiak mailaz maila zehazten dituen laburpena da; bai ikasleei bai familiei egiten denaren berri emateko aurkeztu behar zaie eta horrenbestez, **dokumentu publikoa** da.

Sintesi agiria da eta horretan datza idazteko duen zailtasuna. **Hautatu egin behar da** informaziorik esanguratsuenak, hau da, zein diren **helbururik behinenak**, horiek lortzeko **eduki funtsezkoenak** eta **burutu beharreko ebaluazio-irizpideak**. **Hitzez jaso** behar du **gelan benetan egingo dena**.

Hizkuntza arloan programazioa erraz bideratu daiteke; izan ere, curriculumaren arabera, **hizkuntzaren erabilera hobetzea** helburu izanik, gelako lanaren ardatzak **ahozko** eta **idatzizko testuen ulermena eta ekoizpena** dira. Horrenbestez, printzipio honetatik abiatuta gauzatuko da programazio laburtua idazteko proposamen hau.

o **PROGRAMAZIO LABURTUAREN EREDUA**

Ikuskaritzak bidalitako fitxa-eredua izango dugu abiapuntu. Ezaugarri nagusiak atalez atal zehaztu eta zenbait iradokizun eta gomendio proposatuko dira atal horiek idazteko, hau da, **helburuak, edukiak, metodologia, baliabideak, ebaluazioa eta berreskurapena**.

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA						KODEA:	200 - 20		
ARLOA						DATA			
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 3	DBHO 1	DBHO 2			

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA							

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa	

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA							
---	--	--	--	--	--	--	--	--

--

4	BALIABIDEAK
TESTU LIBURUA: (zertarako erabiltzen den argitu) ARGITALETXEA:	

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

1. Helburuak

Ezaugarriak:

- Hizkuntzen curriculumean adierazitako **helburu orokorren zehaztasunak** dira eta **mailaz maila** adierazi behar dira, idazkera zehatzagoa emanez.
- **Ez dira helburu didaktikoak**, maila bakoitzari lotutako gutxiengo helburuak baizik; maila bakoitzak bereak ditu.
- Helburu horiek **konpetentzia (gaitasun) gisa idatzi** behar dira; hau da, **ZER?, NOLA?, ZERTARAKO?** galderen erantzunak jaso behar dituzte
- Helburuak, bestalde, **ikastetxearen ezaugarri zehatzak kontuan harturik** idatzi daitezke.
- **Hautatu egin behar dira**, hau da, curriculumeko helburu guztiak ez dira zertan azaldu maila guztietan. Horietako batzuk, esaterako, etapako lehen ikasturteetan burututzat jo daitezke; beste batzuk, berriz, aurrerago landu daitezke...
- **Helburu bakoitza** eta berari lotzen zaizkion **Oinarrizko Gaitasunak erlazionatu** egin behar dira.

Atal hau idazteko gomendioak:

- **Irakurri eta aztertu** hizkuntzen curriculumean zehaztutako helburu orokorrak (ondoko helbidean deskargatu daitezke: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43->

[2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/v_eranskina_01_hizkuntzak.pdf](https://www.mec.es/2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/v_eranskina_01_hizkuntzak.pdf)

- **Agerrarazi** helburu orokorren eta Oinarrizko Gaitasunen arteko lotura. (*Urrats hau burutzeko I. Eranskina erabil daiteke*)
- **Hautatu** ikasmaila bakoitzean landuko diren helburuak eta egokitu, zehatzago idatziz. Hizkuntzetan, maila bakoitzaren helburuak egokitzeko modu erraz bat ondokoa da: ebaluazio-irizpideetan eta edukietan adierazitako testu-generoen eta erabilpen eremuen arabera antolatzea.
- Idatzi **Zer?**, **Nola?** eta **Zertarako?** galderen arabera.
- Helburuak idatzi ondoren, **Irakurri** helburu guztiak mailaz maila eta birpasatu, kontraesanik gerta ez dadin. Mailen arteko **progresioa** egiaztatu.

Helburuen dazkeraren eredia (1. DBH)

<p>1. urratsa: hautatu jakintzagaiaren curriculumak zehazten duen helburu orokor bat</p>	<p>1. Helburua : Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako testu idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoaz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko..</p> <p><i>(Kolorez nabarmendu dira ZER?, NOLA? eta ZERTARAKO? galderen erantzunak. Idazkera hori beharrezkoa da gaitasunaren zentzuari eusteko</i></p>
<p>2. urratsa: Lotu helburua eta Oinarrizko Gaitasunak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza Komunikaziorako Gaitasuna • Zientzia- Osasun- Eta Teknologiarako Gaitasuna; Matematikarako Gaitasuna Eta Arte Eta Giza Kulturarako Gaitasuna(testuen gaien arabera) • Informazioaren Tratamendurako Gaitasuna Eta Gaitasun Digitala • Ikasten Ikasteko Gaitasuna
<p>3. urratsa: Zehaztu eta egokitu helburu hori</p> <p>a) Curriculumetik abiatuta, mailari dagozkion ebaluazio-irizpideak kontuan harturik</p> <p>b) Testuliburutik abiatuta</p>	<p>a)</p> <p>1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea, bai <u>ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak</u>; zehazki, arreta berezia jarriko da <u>narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan</u>. Horrela, ikaskuntza- zereginak beteko dira, eta, informazio zehatzak hautemateaz gainera, azterketa gidatua egiteko argibideak jarraituko dira.</p> <p>2. <u>Ikasleen esperientzietatik hurbil dauden gizarteeremuetako eta bizitza akademikoko testu idatzien esanahia ulertzea, eta narrazio- nahiz azalpen-testuetan (deskripziozkoak eta sekuentzialak)</u> arreta berezia jartzea; horretarako, testu zatiak eta informazio eta datu garrantzitsuak identifikatu eta horietan azterketa egiteko emandako argibideak jarraituko dira.</p> <p>b) Begiratu II. Eranskina</p>
<p>4. urratsa: Idatzi helburu egokitua (1 DBH)</p> <p>a) Curriculumeko ebaluazio-irizpideetatik abiatuta</p> <p>Ahozko testuak (narrazioak, azalpen laburrak, jarraibideak, argibideak eta elkarrizketak) eta idatziak (batez ere narrazioak eta azalpen testuak) ulertzea pertsonen arteko harremanetakoak eta eremu akademikokoak informazioa interpretatuz, ikaskuntzarako beste egoera batzuetan aplikatzeko .</p> <p>b) Testuliburuko aurkibidetik abiatuta</p> <p>Ahozko testuak (aurkibideak aipatzen dituenak) eta idatziak (aurkibideak aipatzen dituenak) ulertzea(aurkibidean zehazten diren erabilpen-eremukoetakoak), informazioa interpretatuz, ikaskuntzari lotutako hainbat egiteko burutzeko.</p>	
<p>5. urratsa: Gauza bera egin hautatutako beste helburuekin.</p>	
<p>6. urratsa: Alderatu helburu guztiak eta egiaztatu koherentzia eta progresioa.</p>	

Honela geratuko litzateke dokumentua:

IKASTETXEA								IKASTURTEA 2009/2010	
ARLOA / IRAKASGAIA	Euskal Hizkuntza eta Literatura							DATA		
MAILA	DBH 1	X	DBH 2		DBH 3		DBH 4	1. BATX.	2. BATX.	

1 ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN GISA ADIERAZITA	OINARRIZKO GAITASUNEKIKO LOTURA
1. Pertsonen arteko harremanetako eta eremu akademikoko ahozko testuak (narrazioak, azalpen laburrak, jarraibideak, argibideak eta elkarrizketak) eta idatziak (batez ere narrazioak eta azalpen testuak) ulertzea, informazioa interpretatuz, ikaskuntzako beste egoera batzuetan aplikatzeko .	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna • Zientzia- Osasun- eta Teknologiarako Gaitasuna; Matematikarako Gaitasuna eta Arte eta giza kulturarako gaitasuna(testuen gaien arabera) • Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala • Ikasten ikasteko gaitasuna

2

CURRICULUMENKO EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

Lehenago adierazi den bezala, oso inportantea da mailaz mailako progresioa egiaztatzea, kontraesanak saihesteko.

EREDUA: Helburuen progresioa (1 DBH)

1 DBH	2 DBH	3. DBH	4. DBH
Pertsonen arteko harremanetako eta eremu akademikoko Ahozko testuak (narrazioak, azalpen laburrak, jarraibideak, argibideak eta elkarrizketak) eta idatziak (batez ere narrazioak eta azalpen testuak) informazioa interpretatuz, ulertzea, ikaskuntzarako beste egoera batzuetan aplikatzeko.	Bizitza akademikoari eta <u>ikasle- interesetatik hurbil dauden gaiak lantzen dituzten komunikabideei</u> buruzko ahozko testuak, ikus-entzunezkoak eta idatziak ulertzea (azalpenak, jarraibideak, <u>arrazoiketa errazak</u> , narrazioak); informazioa interpretatuz, ikasitako abeste ikaskuntza egoera batzuk burutzeko.	Eskola eremuko ahozko testuak , ikus-entzunezkoak eta idatziak (jarraibideak, arauak, azalpen laburrak) eta komunikabideetakoak (<u>konbentzitea</u> , informatzea edo <u>iritzia ematea helburu dutenak</u>) ulertzea, <u>informazioa zentzu kritikoaz interpretatuz, beste komunikazio egoera batzuetan baliatzeko.</u>	Komunikabideetako, <u>Instituzioekiko harremanetako</u> eta eskola-eremuko ahozko, ikus-entzunezko eta idatzizko testuak (azalpenak, argudioak, elkarrizketak...) ulertzea, <u>zentzu kritikoaz interpretatuz, ikasitako beste egoera batzuetan baliatzeko.</u>

2. Edukiak

Ezaugarriak:

- Atal honetan aurretiaz zehaztu ditugun helburuak lortzera bideratutako **eduki esanguratsuak hautatu** behar dira
- **Ardatza hizkuntzaren erabilera** da eta horrek behar dituen edukiak.
- Ezinezkoa da curriculumak dakartzan eduki guztiak programazio laburtuan zehaztea; beraz, helburuekin egin den bezala, bi aukera hauek proposatzen dira:
 - Curriculuma abiapuntutzat hartu eta ardatz nagusitzat helburuetan aipatzen diren testu-tipoak eta testu-generoak aukeratu.
 - Abiapuntutzat testuliburua hartu eta erreferentziatzat bertan proposatzen diren testu-tipoak eta testu-generoak aukeratu.

Atal hau idazteko gomendioak:

- **Hautatu** helburuetan aipatutako testu-tipo eta testu-generoak ulertzeko eta ekoizteko beharrezkoak diren **prozedurazko makroedukiak eta horiei dagokien kontzeptuzko edukia eta, azkenik, jarrerazko edukia. (III. Eranskinean hautaketa proposamen bat dago).**
- **Banatu eta antolatu** edukiak ikasturteko hiru ebaluazioaldien artean.

EREDUA: Aurreko helburuari lotutako edukien banaketa eta denboralizazioa (1DBH)

2 CURRICULUMEN EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	Ahozko eta idatzizko narrazio-testuen informazio esanguratsuenen ulermenerako prozedurak (informazioa bildu eta erregistratzea, igorlearen asmoa, xedea, egitura, edukiaren laburpena...)	Ahozko eta idatzizko testuen (azalpen laburrak eta jarraibideak) informazio esanguratsuenen ulermen-prozedurak (informazioa bildu eta erregistratzea, igorlearen asmoa, xedea, egitura, edukiaren laburpena...)	Ahozko, ikus-entzunezko eta idatzizko testuen(narrazioak, azalpenak, jarraibideak...) informazio esanguratsuenak ulertzeko prozedurak (informazioa bildu eta erregistratzea, igorlearen asmoa, xedea, egitura, edukiaren laburpena...)
	Landutako testu-generoen ezaugarriak	Landutako testu-generoen ezaugarriak	Landutako testu-generoen ezaugarriak
	Jarrera kritikoa garatzea era guztietako aurreiritziak biltzen dituzten hizkuntzaren erabileren aurrean	Jarrera kritikoa garatzea era guztietako aurreiritziak biltzen dituzten hizkuntzaren erabileren aurrean	Jarrera kritikoa garatzea era guztietako aurreiritziak biltzen dituzten hizkuntzaren erabileren aurrean

IV. Eranskinean, edukien hautaketa bat proposatzen da testuliburutik abiatuta.

3. Metodologia

Ezaugarriak:

- Curriculumak **metodologia aktiboa** aldarrikatzen du, ikasleen inplikazioa bultzatu behar duena; autonomia eta auto-erregulazioa lortzeko.
- Programazio laburtuan ondoko puntuak zehaztu behar dira:
 - Erabiliko den metodoa: proiektuak, ikasleen interesguneak, irakaslearen azalpenak
 - Azaldu, azaletik baino ez bada, bederen, unitate didaktikoen garapena.
 - Ikasleak taldekatzeko proposamenak (banaka, talde handian, talde txikian).
 - Erabiliko diren baliabideak eta zertarako erabiliko diren (ikasgela, informatika gela, liburutegia...)
 - Errefortzurako jarduerak eta sakontze jarduerak zehaztuko dira ikasleen aniztasunari erreparatuz.

Atal hau idazteko gomendioak:

- Kontuan izan ikas-irakaskuntza aktiboei estu lotuta dauden ondoko estrategia metodologikoak:

- **Ikaskuntzaren helburua lortzeko motibazioa bultzatzea:** helburuak jakinaraztea, lana gauzatzeko negoziazio jarduerak proposatzea, ikasleei hitza ematea...
- **Parte-hartzeko estrategiak sorraraztea:** zalantzak adieraztea, ikaskuntza funtzionalak bultzatzea...
- **Toki eta denbora antolaketa desberdinak faboratzea:** ikasgelako espazio antolaketa aldatzea, eskola saioen iraupena malgutzea...
- **IKTak era esanguratsuan integratzea:** IKTen esparruko baliabide didaktikoak erabiltzea: wq-ak, altxorraren bila, blogak...; IKTak ikasteko zein gelakideen artean komunikatzeko erabiltzea...
- **Askotariko informazio iturriak erabiltzea era askotako euskarrietan:** informazio hautaketaren prozesua gidatzea; informazio iturritzat testu liburua soilik ez erabiltzea...
- **Ikaskuntza autonomoari laguntzea:** transmisio hutsezko ikaskuntza mugatzea, irakasle-ikasleen ohiko eginkizunak aldatzea...
- **Ikasitakoa ahoz zein idatziz komunikatzea:** ikasitakoa jakinaraztea, azaltzea; berdinen arteko interakzioa bultzatzea ezagutza eraikitzekeo...
- **Ebaluazio hezitzailea sustatzea:** auto-erregulaziorako egoerak sortzea, ebaluaziorako irizpideak jakinaraztea, auto-ebaluazioa zein koebaluazioa bultzatzea...
- **Ikasitakoaren funtzionaltasuna eskola esparrutik kanpo bultzatzea:** irakasgaien zein arloen arteko erlazioak sustatzea, metodologia globalak erabiltzea...

Laguntza gisa, kontsultatu daitezke bai curriculumean bai Oinarrizko Gaitasunak garatzeko laguntza materialetan azaltzen diren metodologiari buruzko xehetasunak. (Ondoko helbidean: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2519/eu/>)

4. Baliabideak

Ezaugarriak:

- Atal honek **erabiliko diren baliabide guztiak** islatu behar ditu. Baliabideak askotarikoak izan behar dira Curriculumean zehaztutako hizkuntza trebetasun guztiak lantzeko (entzun, hitz egin, elkarrizketan aritu, irakurri eta idatzi).
 - Informazio iturri desberdina keta askotarikoak: testuliburua, kazetak, aldizkariak, komikiak, mota guztietako liburuak...
 - Teknologi aberrien erabilera: ordenagailua, proiektzioak, bideoak..
 - Beste gune batzuen erabilera ikasgelaz gain: liburutegia, museoa, patioa, inguruko beste leku batzuk...
 - Beste zenbait jarduera: hitzaldiak, topaketak, elkarrizketak, antzezlanak, erakusketak...

5. Ebaluazioa

Ezaugarriak:

- Ebaluazioa ikaskuntzaren eragilea da eta **ezin da ikas-irakas prozesuetatik bereizi**.
- Ebaluazioak emaitzak neurtzen ditu eta, halaber, ondokoak ere baldintzatzen ditu: **zer irakasten den, nola irakasten den, zer ikasten den, nola ikasten den**.
- Gaitasunen ebaluazioa **ebaluazio formatiboa** da.
- Funtsezkoa da ikasleek ikaste prozesuan izan dituzten zailtasunak eta egin dituzten aurrerapenak identifikatzeko eta prozesua ikasleen beharrian errealetara egokitu ahal izateko.
- Beraz, ebaluatzeko **askotariko tresnak proposatu behar dira**, eta horietaz gain auto-erregulazioa eta auto-ebaluazioa bultzatzen dituzten jarduerak bultzatu.
- Ikasleek ikasturtearen hasieran **jakin behar dituzte** zer ebaluazio-irizpide hartuko diren kontuan, nolako ebaluazio-tresnak erabiliko diren eta ebaluazio orokorrean zer garrantzi eta pisu izango duten.

5.1. Ebaluazio teknikak eta tresnak

Atal hau idazteko gomendioak:

- **Proposatu** hautatutako ebaluazio-irizpideak neurtzeko baliagarriak diren ebaluazio tresnak: autoebaluazio eta koebaluazio galdetegiak, ikasleen ekoizpenak, ikastaldekoen behaketa, portafolioa, ahozko eta idatzizko probak, prozesua gidatzeko eta neurtzeko kontrol orriak, kontratu didaktikoak...

- **Aukeratu ebaluatzeko tresna eta teknika askotarikoak.** Garrantzitsua da kontuan hartzea ebaluazioa ez dela soil-soilik kalifikazio datu bakar eta bakanen inguruan ardaztu behar..
- **Bereizi prozesua ebaluatzeko teknikak eta tresnak eta kalifikazioa jartzeko erabiliko direnak..**
- Saiatu **kalifikazio portzentajea** zehazten erabiliko diren ebaluazio tresna guztietan.

5.2. Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak

Atal hau idazteko gomendioak:

- **Aztertu** kontuan hartuko diren ebaluazio-irizpideak eta **Hautatu** ebaluazio adierazlerik orokorrenak eta esanguratsuenak (*Curriculumean maila bakoitzari dagozkion ebaluazio-irizpideak zehazturik ageri dira*).
- **Zehaztu ohiko ebaluaziorako nahiz aparteko ebaluaziorako irizpideak:** zer ebaluatuko den, nola ebaluatuko den eta noiz eta nola egingo den berreskurapena.

Eredua. Lehenengo helburuari lotutako ebaluazio atalaren idazkera (1. DBH)

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	
1. Ahozko, ikus-entzunezko eta idatzizko testuak ulertzea.	
ADIERAZLEAK	
<ul style="list-style-type: none"> ○ Ahozko eta idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzen du (gaia, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak) ○ Ahozko eta idatzizko testuen xedea antzematen du ○ Ahozko eta idatzizko testuetan proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzen daki eta eduki garrantzitsua laburbiltzen daki. 	
2...	
3...	
4...	
TRESNAK ETA KALIFIKAZIO PORTZENTAJEAK	
Ikasleen behaketa %10	
Ikasleen ekoizpenak (banakako lana eta taldekoa)..... %60	
Ahozko eta idatzizko probak%30	

6. Berreskurapen eta indartze sistema

Ezaugarriak:

- Ikasteko zailtasuna edota erritmo geldoagoa duten ikasleen ikaskuntza prozesuari laguntzen dio.
- Proposatutako helburuak lortzeko tresnak eta baliabideak zehazten ditu.
- Ondokoak bereizi behar dira: Ikasturtean zehar egingo diren berreskurapenerako jarduerak eta aurreko ikasturteetako irakasgaiak berreskuratzeak.

Atal hau idazteko gomendioak:

- Zehaztu, ebaluazio-adierazleak kontuan harturik, zein izan daitezkeen berreskurapenerako prozedurak (proba idatziak, ahozkoak, banakako ekoizpenak, errefortzurako jarduerak...)
- Adierazi noiz burutuko diren ikasturtean zehar.










○ **ERANSKINAK**

I. ERANSKINA.

Curriculumeko Helburu Orokorren eta Oinarrizko Gaitasunen arteko erlazioa.

	Zientzia-, teknologia- eta ikasten ikasteko gaitasuna	Matematikarako gaitasuna	Hizkuntza- komunikaziorako	Informazioa tratatzeke eta	Gizarterako eta herritartasunerako	Giza eta arte- kulturarako	Norberaren autonomiarako
1. Hizkuntza erabiltzeko eremu desberdinetatik jasotako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta ikuspegi kritikoaz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.	X	X	X	X	X	X	X
2. Ahoz eta idatziz egoki, koherentzia eta zuzen adierazteko eta elkarrekintzan jarduteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia desberdinei eraginkortasunez erantzuteko.	X	X	X	X	X	X	X
3. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskara erabilerarekiko eta hizkuntza-normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatzeko.			X		X		
4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa baloratuko da.			X		X		
5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza estereotipoak saihestuko dira.		X	X		X		
6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, hizkuntza desberdinen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentzia eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.		X	X				
7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoaz erabiltzea, eskola jardueran ahozko eta idatzizko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko.			X	X	X		
8. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio estrategiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute.		X	X				X
9. Literatura-generoen oinarrizko arauak eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.			X			X	
10. Literatura-ondarea balioestea norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzeke; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturarako eta literatura unibertsaleko adibide garrantzitsuak irakurri eta aztertuz, norberaren kultura-identitatea eraiki ahal izango da.			X			X	
11. Testu eredugarriak eta norberak hautatutako testuak irakurri eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuz, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzia emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko.			X			X	

II. ERANSKINA. Helburuak testuliburuko aurkibidetik abiatuta.

KOMUNIKAZIOA I		KOMUNIKAZIOA II
Irakurketa	Lanketa	Testuak
 <i>Musika edo zarata?</i> M. L. SAN MARTIN	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, atzizkiak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia, eztabaida, inkesta, hitz bitan IDATZI: definizioak	E-maila
 <i>Lisatzeko gogorik ez</i>	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, esaerak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia, elkarrizketa antzetzua, hitz bitan IDATZI: oharra	Definizioak
 <i>Xentimorik gabe</i> Euskadi Irratia	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, esaerak ENTZUN MINTZATU: solasaldia, azalpena, iritzia, hitz bitan IDATZI: iragarkia	Ipuina
Irakurketarako proposamenak: <i>Nim-en uhartea; Nire aita ezin izan nuen salbatu</i>		
Autoebaluazioa I		
 <i>Hili</i> Andoni EGANA	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, esaerak ENTZUN ETA MINTZATU: eztabaida, hitz bitan IDATZI: egunerokoa	Argazkien albuma
 <i>Artzain gezurtia eta otsoa</i> J. M. ETXEBARRIA	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, esaerak ENTZUN ETA MINTZATU: jolasak, solasaldia, azalpena, hitz bitan IDATZI: hitz jolasak	Albisteak
 <i>Hitzik gabeko komunikazioa...</i> Rufino IRAOLA	LEXIKOA: adjektiboak, keinuak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia, azalpena, hitz bitan IDATZI: deskribapena	Elkarrizketa
Irakurketarako proposamenak: <i>Otsoaren begia; Dorretxe zaharreko misterioa</i>		
Autoebaluazioa II		
 38 Idurre ESKISABEL	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, atzizkiak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia, azalpena, inkesta, hitz bitan IDATZI: iritzia	Iritzia
 <i>Amak ezkondu ninduen</i> R. M. AZKUE	LEXIKOA: hiztegia, hitz elkartuak, atzizkiak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia eta azalpena IDATZI: e-maila	Aholkua
 <i>Arriskuaren xarma</i> Gaztetxulo	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, atzizkiak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia eta azalpena, hitz bitan IDATZI: eskutitza	Komikia
Irakurketarako proposamenak: <i>A zer gaupa... en amodioa Suedian</i>		
Autoebaluazioa III		
ERANSKINA		

HIZKUNTZAREN HAUSNARKETA		KULTURA	LITERATURA
Gramatika eta beste	Araua eta gomendioak		
Komunikazioa SINTAXIA: kontzesiboak DEKLINABIDEA: NOR, NORK ADITZA: indikatiboa. NOR. Trinkoa	Puntua, bi puntuak, hiru puntuak Galdera eta harridura marka	Munduko hizkuntzak	Zer da literatura?
Idazkera eta ahoskera SINTAXIA: zehar-galderak DEKLINABIDEA: NORI, NORTZAT, -(R)IK ADITZA: indikatiboa. NOR-NORI	Koma Puntua eta koma	Euskararen sorrera eta historia	Literatur generoak
IS, AS eta osagaiak SINTAXIA: kausazkoak I DEKLINABIDEA: NOREN, NONGO ADITZA: indikatiboa. NOR-NORK	S, z, x, ts, tz, tx	Euskararen egoera gaur egun	Ipuina
Izena eta izenordaina SINTAXIA: Kausazkoak II DEKLINABIDEA: NORENTZAT, NOREKIN, ZEREZ, ZERTAZ ADITZA: NOR-NORK. Trinkoa	"h" letra	Euskalkiak I	Kondaira
Izenondoa eta izenlaguna SINTAXIA: denborazkoak DEKLINABIDEA: NON, NORENGAN ADITZA: indikatiboa. NOR-NORI-NORK	Ordua	Euskalkiak II	Alegia
Determinatzaileak SINTAXIA: konparaziozkoak DEKLINABIDEA: NORA, NORENGANA, NORAKO ADITZA: baldintza	Data	Euskara batua	Esaera zaharrak
Aditza I SINTAXIA: erlatibozkoak DEKLINABIDEA: NONDIK, NORENGANDIK, NORENGATIK ADITZA: baldintza. NOR-NORI	Neurriak, ehunekoak eta ordinalak	Euskalkiak Abestiak I	Bertsolaritza I
Aditza II SINTAXIA: moduzkoak DEKLINABIDEA: NORANTZ, NORENGANANTZ ADITZA: baldintza. NOR-NORK	Marra luzea eta laburra	Euskalkiak Abestiak II	Bertsolaritza II
Aditzondoa eta adizlaguna SINTAXIA: emendiozko lokailuak DEKLINABIDEA: NORAINO, NORENGAINO ADITZA: baldintza. NOR-NORI-NORK	Laburdurak	Euskalkiak Abestiak III	Bertsolaritza III

abal argitaletxea
Euskara eta Literatura 1.DBH

Ahozko testuak (azalpena, solasaldiak, elkarrizketak, narrazioak...) eta idatziak (narrazioak, aholkuak, iritzi laburrak, elkarrizketak) ulertzea, batez ere pertsonen arteko harremanetakoak, eremu akademikoak eta literaturakoak, informazioak interpretatuz, ikaskuntzari lotutako hainbat egiteko burutzeko.

Aurkibidea aztertzean badirudi ahozko zein idatzizko testuen ulermena lantzeko prozedurak ez direla behar beste lantzen. Horregatik, material osagarria beharko litzakete helburua behar bezala burutzeko.

III. ERANSKINA.

Makroedukien hautaketa

1. Eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

- Ikasgelan eta ikastetxean gizarte-harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.
- Elkarrizketetan parte hartzea, testuak ulertzeko nahiz idazteko eta era guztietako egoeretan aurkitu daitezkeen komunikazio-prozesuei buruz hausnartzeko.
- Curriculumaren hainbat zeregini bereziki dagozkien komunikazio-egoeretan parte-hartze aktiboa izatea; bereziki, ikaskuntza-jarduerak antolatzeke eta kudeatzeko, informazioa bilatzeko eta horren ekarpenak egiteko, argibideak eskatzeko, taldean lankidetzan aritzeko eta egindako jardueren azken emaitza adierazteko.
- Harreman-trukea balioestea, ezagutzen eta ideien kontzientzia hartzeko eta ikaskuntza-prozesu ororen ulermen- eta adierazpen-prozesuak erregulatzeko baliabidetzat, bai banakako jardueratan, bai taldeko lankidetzan.
- Harreman-trukea norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko eta jarrera erregulatzeko baliabidetzat balioestea.
- Harreman-trukeak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzea.
- Ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio esanguratsuenak ulertzea, bai ikasleen eguneroko bizitzari nahiz ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan.
- Ahozko testuak aztertzeke jarraibideak erabiltzea. Behar bezala entzunda, informazioak antzematea eta hautatzea; entzuten jakitea.
- Entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
- Landutako ahozko testuen egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- Ahozko mezuen komunikazio-egitura antzematea: adierazitako ideien ordena eta hierarkia. Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazioegoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Jarduera akademikoarekin lotutako gaiak edo gertaera interesgarriak lotuak ahoz azaltzea.
- Aurrez prestatutako gidoi batean oinarrituz, esperientziarekin lotutako gertaerak ahoz narratzea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.
- Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzaz erabiltzea, ahozko erabilerak hobetzeko. Estrategiak jakinaren gainean erabiltzea, landutako ahozko testuen ulermulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Edozein hizkuntzatan erabil daitezkeen hizkuntzaezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetan ahozko diskurtsoen ulermena eta sorkuntza bultzatzeko.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea. Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz adierazpenak egiteko interesa izatea; horrez gainera, elkarrizketa zuzentzen duten arauak errespetatzea eta gizarteko komunikazio-arauak aplikatzea.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabileretan jarrera kritikoak bultzatzea.
- Ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.

2. Eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Eguneroko bizitzako testu idatzietatik eta ikasle-interesetatik hurbil dauden komunikabideetatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea, eta gertaera sinpleen azalpenetan, deskribapenetan eta narrazioetan arreta jartzea.
- Ikasleen bizitza akademikoko testu idatziak ulertzea, eta curriculumeko hainbat irakasgaitako narrazioen, deskribapenen, glosategien nahiz azalpen-testu sinpleen ezaugarri espezifikoetan arreta jartzea.
- Landutako mezu idatzien komunikazio-egitura antzematea: igorlearen asmoa (testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta) eta adierazitako ideien ordena hierarkikoa (irudikatuta ikusi ahal izateko eskemak erabiliko dira).

- Paperean edo euskarri digitalean dauden testu idatzien edukia pausoz pauso aztertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzeko; horiek argi ikusteko, eskemak egingo dira.
- Testuinguruan oinarrituta, lexiko ezezagunaren esanahia bilatzea, eta esanahi horiek testualizatzea; horretarako, hitzen forma aztertu eta hiztegiak erabiliko dira.
- Edukia sintetizatzea, eskemak edo laburpenak eginez.
- Ahots goraz irakurtzea eta, zeregin horretan, komunikazio-egoera eta –funtzio horretarako egokiak diren ahoskera, intonazioa eta erritmoa erabiltzea; horrez gainera, ikus-entzunezko baliabideak erabili ahal izango dira (ahotsa erregistratzeko).
- Plangintza egin ondoren, hainbat komunikazio-helburu dituzten eta hainbat testuingurutan dauden testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean): gutunak, oharak, abisuak, narrazioak eta deskribapenak; horretarako, komunikazio-egoera eta horren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuko dira.
- Plangintza egin ondoren, bizitza akademikoko testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); bereziki, laburpenak, azalpen laburrak, eta narrazio-, deskribapen- eta azalpen-testuei buruz egindako lanen eta ikaskuntzen ondorioak. Horretarako, komunikazio-egoera eta horren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuko dira.
- Liburutegia eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak ereduatan oinarrituz identifikatu ondoren, plangintza-prozedurak zehaztea, testu idatzien barne- eta kanpo-loturen egokitasuna eta koherentzia lortzeko (hau da, hainbat euskarritako informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea...), eta, ondoren, hautatzea.
- Testu idatziak egituratzean, eskema errazak erabiltzea; horiei esker, ideiak ordenatuko dira.
- Testualizatzeke eta berrikusteko pausoz pausoko prozedurak aplikatzea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Testuak lagunarteko erabilerara eta erabilera formalera egokitzea, mezuaren komunikazio-egoeraren arabera.
- Oinarritzko hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, ideiak testu barruan kohesionatzeko: lokailuak, oinarritzko testuak, izen-sintagmaren eta aditz-sintagmaren arteko komunztadura...
- Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeke eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea). Forma-ezaugarriei dagokienez, testua egituratzea; horretarako, idatzizko lanak aurkezteke oinarritzko arauak jarraituko dira.
- Testu-tratamendurako IKTen teknikak (testu-prozesadoreak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaileak) erabiltzea, bai testualizatzeke, bai testua berrikusteko eta hobetzeko.
- Erabilitako gramatika-, ortografia- eta tipografiaarauei dagokienez, testu idatziak paperean nahiz euskarri digitalean egoki aurkezteke interesa agertzea.
- Idazmena hainbat modutan aintzat hartzea: informazio-eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta jokabidea arautzeko modutzat.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabilerei dagokienez, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Testuak ondo idazten jakiteak norbanakoan eta gizartean duen garrantziaz kontzientziazatzea.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Gazte-literaturako lanak eta literatura tradizionalako eta herri-literaturako lanak (ikasleen adinerako eta intereserako egokiak direnak) autonomiaz eta laguntzaz irakurtzea, eta, gero, norberaren eta besteen esperientziak alderatzea.
- Ipuin eta kontakizun laburrak (gure kulturako eta beste hainbat kulturatako mitoak eta elezaharrak barne) espresioa landuz irakurtzea eta elkarri iruzkinak egitea, eta, horrez gainera, literatura-kontaktaren eta horren funtzioaren oinarritzko elementuak ezagutzea.
- Literatura-testua irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.
- Irakurketen iruzkin bateratuetan oinarrituz eta ikus-entzunezko materialak ikusiz, olerkiak eta bertsoak entzutea eta errezipitatzeko; horrez gainera, erritmoaren eta bertsoegintzaren oinarritzko elementuak ezagutzea.
- Antzerki-lanak edo zatiak iruzkinak eginez eta dramatizatuz irakurtzea, eta antzerki-testuaren forma ezaugarriak ezagutzea.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea, eta, ereduak hausnartu eta aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiltzea; horretarako,

hain zuzen, irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza erabiliko dira. Planifikatu ondoren, irakurritako testuari dagokionez, norberak izan dituen bizipenei buruzko balorazioak egitea.

- Planifikatzeko, testualizatzeko eta berrikusteko prozedurak bultzatzea, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Informazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea, nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko. Ikastetxeko liburutegia, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak zuzen erabiltzea.
- Ikasgelan eta ikastetxean antolatutako literatura-jardueretan parte hartzea.
- Irakurtzeko autonomia etengabe eskuratuz joatea eta literatura plazera lortzeko eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat hartzea.
- Ahozko literatura kultura transmititzeko eta norberaren kultura-identitatea eraikitzeke balia bidetzat hartzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentiberatasun estetikoak lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak balioestea.
- Literatura-testuen balio esplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea

IV. ERANSKINA

Edukiak. Testuliburuko aurkibidetik abiatuta

KOMUNIKAZIOA I		KOMUNIKAZIOA II
Irakurketa	Lanketa	Testuak
1 <i>Musika edo zarata?</i> M. L. SAN MARTIN	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, atzizkiak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia, eztabaida, inkesta, hitz bitan IDATZI: definizioak	E-maila
2 <i>Lisatzeko gogorik ez</i>	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, esaerak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia, elkarriketa antzetzua, hitz bitan IDATZI: oharra	Definizioak
3 <i>Xentimorik gabe</i> Euskadi Irratia	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, esaerak ENTZUN MINTZATU: solasaldia, azalpena, iritzia, hitz bitan IDATZI: iragarkia	Ipuina
Irakurketarako proposamenak: <i>Nim-en uhartea; Nire aita ezin izan nuen salbatu</i>		
Autoebaluazioa I		
4 <i>Hiri</i> Andoni EGAÑA	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, esaerak ENTZUN ETA MINTZATU: eztabaida, hitz bitan IDATZI: egunerokoa	Argazkien albuma
5 <i>Artzain gezurtia eta otsoa</i> J. M. ETXEBARRIA	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, esaerak ENTZUN ETA MINTZATU: jolasak, solasaldia, azalpena, hitz bitan IDATZI: hitz jolasak	Albistea
6 <i>Hitzik gabeko komunikazioa...</i> Rufino IRAOLA	LEXIKOA: adjektiboak, keinuak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia, azalpena, hitz bitan IDATZI: deskribapena	Elkarriketa
Irakurketarako proposamenak: <i>Otsoaren begia; Dorretxe zaharreko misterioa</i>		
Autoebaluazioa II		
7 <i>38</i> Idurre ESKISABEL	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, atzizkiak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia, azalpena, inkesta, hitz bitan IDATZI: iritzia	Iritzia
8 <i>Amak ezkondu ninduen</i> R. M. AZKUE	LEXIKOA: hiztegia, hitz elkartuak, atzizkiak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia eta azalpena IDATZI: e-maila	Aholkua
9 <i>Arriskuaren xarma</i> Gaztetxulo	LEXIKOA: hiztegia, esamoldeak, atzizkiak ENTZUN ETA MINTZATU: solasaldia eta azalpena, hitz bitan IDATZI: eskutitz	Komikia
Irakurketarako proposamenak: <i>Azken gaupasa; Lehen amodioa Suedian</i>		
Autoebaluazioa III		
ERANSKINA K		

Ahozko eta idatzizko testuen ulermenari lotutako edukiak. Hautatu eta ebaluazioaldietan banatu behar dira, aurreko iradokizunetan zehaztu den bezala.

HIZKUNTZA ARLOKO AHOLKULARITZA
Berritzegune Nagusia

HIZKUNTZAREN HAUSNARKETA		KULTURA	LITERATURA
Gramatika eta beste	Arauek eta gomendioak		
Komunikazioa SINTAXIA: kontzesiboak DEKLINABIDEA: NOR, NORK ADITZA: indikatiboa. NOR. Trinkoa	Puntua, bi puntuak, hiru puntuak Galdera eta harridura marka	Munduko hizkuntzak	Zer da literatura?
Idazkera eta ahoskera SINTAXIA: zehar-galderak DEKLINABIDEA: NORI, NORTZAT, -(R)IK ADITZA: indikatiboa. NOR-NORI	Koma Puntua eta koma	Euskararen sorrera eta historia	Literatur generoak
IS, AS eta osagaiak SINTAXIA: kausazkoak I DEKLINABIDEA: NOREN, NONGO ADITZA: indikatiboa. NOR-NORK	S, z, x, ts, tz, tx	Euskararen egoera gaur egun	Ipuina
Izena eta izenordaina SINTAXIA: Kausazkoak II DEKLINABIDEA: NORENTZAT, NOREKIN, ZEREZ, ZERTAZ ADITZA: NOR-NORK. Trinkoa	"h" letra	Euskalkiak I	Kondaira
Izenondoa eta izenlaguna SINTAXIA: denborazkoak DEKLINABIDEA: NON, NORENGAN ADITZA: indikatiboa. NOR-NORI-NORK	Ordua	Euskalkiak II	Alegia
Determinatzaileak SINTAXIA: konparaziozkoak DEKLINABIDEA: NORA, NORENGANA, NORAKO ADITZA: baldintza	Data	Euskara batua	Esaera zaharrak
Aditza I SINTAXIA: erlatibozkoak DEKLINABIDEA: NONDIK, NORENGANDIK, NORENGATIK ADITZA: baldintza. NOR-NORI	Neurriak, ehunekoak eta ordinalak	Euskalkiak Abestiak I	Bertsolaritza I
Aditza II SINTAXIA: moduzkoak DEKLINABIDEA: NORANTZ, NORENGANANTZ ADITZA: baldintza. NOR-NORK	Marra luzea eta laburra	Euskalkiak Abestiak II	Bertsolaritza II
Aditzondoa eta adizlaguna SINTAXIA: emendiozko lokailuak DEKLINABIDEA: NORAINO, NORENGAINO ADITZA: baldintza. NOR-NORI-NORK	Laburdurak	Euskalkiak Abestiak III	Bertsolaritza III

Ahozko eta idatzizko testuen ulermenari lotutako edukiak. (Gehienak kontzeptuzkoak dira. Prozedurei lotutako edukien falta antzematen da).

○ **HELBIDE ERABILGARRIAK**

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO SAILA. Curriculuma eta oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko orientabideak eta material lagungarria.

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2519/eu/>

Euskal Curriculuma

[Dekretuak eta araudia](#)

[Orientabideak eta material lagungarriak](#)

[Tutoretza materialak](#)